

Erref.- AIP/Goi mailako teknikaria

**EBAZPEN-PROPOSAMENA, GIZARTE-LANGILEEN KATEGORIAKO HAUTAKETA-PROZESUTIK SORTUTAKO LAN-POLTSAN LAN EGITEKO ZONA AUKERATZEKO EPEA ZABALTZEA XEDATZEN DUENA.**

**Gerente andrea:**

GUFEn Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 13an egindako bilera arruntean, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpide berriak onartu zituen, zonifikazio berriaren eranskinarekin batera. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO, 76. zk., 2018ko apirilaren 20koa, eta okerren zuzenketa BAOren 85. zenbakian, 2018ko maiatzaren 4an) eta GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian argitaratu zen.

Erabaki horren 4. artikuluan ezartzen da hautaketa-prozesuaren ondoriozko poltsak eratzen direnengan aukeratuko dituztela izangaiek, lehenengoz, lan egiteko zona zein kontratu-mota direla-eta lehenetsitako aukerak, orduan aukeratuko baitute zere poltsa motatan egon nahi duten.

Artikulu berean ezartzen da, hautaketa-prozesu bakoitza amaitu ondoren, GUFEk ofizios hasiko duela lan-poltsak eratzeko prozesua. Eraginkortasun handiagoa lortzeko, egokitzen jo da orain epe bat zabaltzea lan egiteko gunea aukeratzeko. Aukera horrek baldintza etengarri hau du: lan-poltsaren behin betiko onarpena, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpide berrietan ezarritako bermeekin. Azken xedea da, Gobernu Batzordeak lan-poltsa behin betiko eta formalki onartzen duenean, bat etortzea, zuzen-zuzenean, zonifikazioarekin, nahi gabeko ondorioak eta efektuak saihesteko.

Beren lehentasunak ezarritako epean eta forman adierazten ez dituztenen kasuan, ez dute galduko eskubidea, baina plaza hutsak betetzeko egon daitezkeen beharrezko lan-poltsa orokor batean baino ezin izango dira sartu, eta beti Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruak ezartzen duen eran.

Edonola ere, poltsak osatzen dituzten pertsonen lanpostua betetzeko baldintza guztiak bete beharko dituzte kontratua egiten den egunean.

Beraz, hau sinatzen dutenek honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizute, aztertu eta onar dezazun:

**EBAZPENA**

**Lehenengoa.**- Zona aukeratzeko epe bat zabaltzea, **2020ko urtarrilaren 20tik otsailaren 3ra**, egun biak barne, gizarte-langileen kategoriako hautaketa-prozesutik sortutako lan-poltsa osatuko duten pertsonen lanerako zona eta kontratu-mota aukeratzeko eskubidea baliatu dezaten. Telematikoki egin beharko dute, GUFEn web-orrian ([www.ifas.bizkaia.eus](http://www.ifas.bizkaia.eus)), «Lan-poltsak» atalean.



Beren lehentasunak ezarritako epean eta forman adierazten ez dituztenen kasuan, ez dute galduko eskubidea, baina plaza hutsak betetzeko egon daitezkeen beharizanetarako lan-poltsa orokor batean baino ezin izango dira sartu.

**Bigarrena.**- Hala baliatutako aukeratzeko eskubideak efikazia eta ondorioak izan ditzan ezinbestekoa da Gobernu Batzordeak behin betiko eta formalki onartzea lan-poltsa.

**Hirugarrena.**- Ebazpen honen laburpena GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian argitaratzea.

Bilbon, 2020ko urtarrilaren 10ean

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOKO  
BURUA

PERTSONAK ZUZENTZEKO  
DEPARTAMENTUKO BURUA

*Sin.: M<sup>a</sup> José Larrinaga Artetxe*

*Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón*

GUFeko gerentearen 2020ko urtarrilaren 10eko EBAZPENA. Aurreko proposamena ikusita, osorik onartzen da. Aurrekoa bete bedi.

*Sin.: Nerea Urien Azpitarte*